

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein motatako negozio aurrera eramateko gakoa, hori dela eta, beren beharrak hobeto asetzeko hauen ezaugarri komunak arabera taldekatzea komenigarria izaten da. Orain, alde batetik bezeroak definituko ditugu eta bestetik gure erabiltzaileak.



Lehenik, gure bezero nagusiez hitz egindo dugu, hau da, udaletxeek. Hauek, Goierri mailan dauden guztiak izango dira, nahiz eta herri txikiak edo handiak izan. Hauek bete behar duten baldintza bakarra areto bat edukitzea da gure lehiaketa egin ahal izateko. Herriak areto bat edukiko ez balu frontoi edota leku itxi batean egiten saiatuko ginateke.

Beste alde batetik gure erabiltzaileak zeintzuk diren zehaztuko ditugu. Gure erabiltzaileak Goierri herrietako gazteak izango dira, zehazki 6 eta 12 urte bitartean dituzten umeak. Urte tarte hau betetzen duten ume guztiak hartu dezakete parte lehiaketan eta baldintza bakarra adin tarte betetzea izango da. Horrez gain, beste gauza guztiak hau da, sexuak, ezaugarri fisikoak edota psikologikoak ez dira garrantzitsuak.

Erabiltzaileen aldetik euskara ez dakitenak ez dira batere baztertuak izango, are gehiago guk gure aldetik, zein euskaraz hitz egiten dakiten umeek laguntzatxo bat emango diegu euskaraz hitz egiten ikasteko edota euskara-maila hobetzeko. Horrela gure hizkuntza sustatzea ere lortuko dugu lehiaketa honen bidez.

